

Inguruko pertsonak ere bere eleberrietako protagonista bihurtzen zituen Bellowk, inongo erreparririk gabe: maitale ohiak, lagun izandakoak, ezagun soilak... Esaterako, *Humboldt's Tree* (1976). Idazlearen maisulanetako bat da, eta bere lagun baten bizitzan oinarrituta dago. Obra horrek Pulitzer saria eman zion, 1976an, eta, egun, XX. mendeko narratiba anglosaxoiaren funtsezko lantzat jotzen da. Urte berean, gainera, Nobel saria jaso zuen. «haren obratan gizakiaren ulermena eta kultura garaikidearen analisia uztartzeagatik».

Sari hori jasotzerako, gizateria modernoaren ezinegonetan jarria zuen fokua; besteak beste, *Carpe Diem* (1956), *Henderson the Rain King* (1959), *Herzog* (1964) eta *Mr. Sammler's Planet* (1970) eleberrietan. Horietako bat da, hain justu, haren libururik arrakastatsua: *Herzog*. 1960ko hamarkadako AEBetako gizaratearekin borrokan dabilen pertsona baten bizitza kontatzen du, eta, urtebetean, azal gogorreko 140.000 ale eta poltsikoko milioi bat baino gehiago saldu zituen. *The New York Times* egunkariak azalera eraman zuen liburua, eta «maisulan» gisa definitu zuen.

Zachary Leaderrek garai horretatik aurrerakoak jaso ditu idazlearen biografiaren bigarren atalean. Liburuaren hasieran, Bellow AEBetako letren munduaren gailurrean dagoen idazle bat da; aberatsa, famatua eta laudatua. Arlo pertsonalean, berriz, bigarren liburukiak lehenbizikiok baino bizitza ilunagoa erakusten du. Eta idazlearen literaturaz kanpoko erabaki eta jarreraren inguruko polemiketan ere jartzen du fokua. Iraultza sexualaren aldekoa zen erabat. Bost aldiz ezkondu zen –«*serial marrier*» bat zela esaten zuen bere buruaz–, eta mespretxuz hitz egiten zuen emazte ohiei buruz, bai eta beltzei eta talde gutxituei buruz ere. Vietnamgo gerraren aurka azaltzeari ere, garai-kide zituen idazle askoren kontrara, uko egin zion behin baino gehiagotan.

### Euskarara ekarri dute

Euskaraz ere irakur daiteke Saul Bellowren lana: Juan Mari Mendizabalek *Heldu orainari* eleberria itzuli zuen, 1992an. Kritikari askorentzat, idazlearen lanik bikainena da. Hil arte jarraitu zuen idazten Bellowk. Haren azken liburua *The Actual* (1997) eta *Ravelstein* (2000) izan ziren. 2005eko apirilean hil zen, Brooklingo (Massachusetts) bere etxean, gaitz luze baten ondoren.

## Galeraren osteko paisaiak

### Peru Iparragirre

**D**enbora nahikoz irakinez gero bigundu eginen direla, horixe erantzuten du *Neguko argiak* eleberriko protagonistetako batek sustraiei zer irizten galdetzen diotenean. Irati Elorrietaren bigarren eleberria da *Neguko argiak*, narrazioz osatutako *Burbuilak* (Alberdania, 2008) nobela argitaratu zuenetik hamar urte igarotakoan plazaratu duena. Erraza da bi liburuen arteko zubiak eraikitzea, antzekoak baituzte koordenatu orokorrak. Irakurtzen hastean lehen liburuko pertsonaiak bigarrenaren orrietan topatu arren, agudo geratu dira atzean. Espazioa hartzen eta betetzen duen nobela da *Neguko argiak*.

*Burbuilak*-en dagoeneko bereiz zitekeen ahots propioari heldu dio honetan ere Elorrietak, nahiz eta

helduagoa delako irudipena izan dudana; garatuagoa, landuagoa, agian. Testua bera luzeagoa izateak eta narrazioaren konplexutasunak ere elikatuko dute, ziurrenik, irudipen hori. Ederki eraikitako eleberria da hau, pertsonaia-sare edo -baso zabala duena oinarri sendo gisa. Erreferentzia geografiko, historiko eta biografiko bilduma bat du argamasa nobelak, kontakizuna eta pertso-



### 'Neguko argiak'

**Idazlea:** Irati Elorrieta. **Argitaletxea:** Pamiela

## XII. Etxepare sariketa

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero

**E**txepare sariketa haurrei zuzenduriko album ilustratuen sariketa da, aurtur XII. edizioa izan duena, eta *Cosimoren katiuskak* obra saritu duena.


Album ilustratua literaturaren adierazpide berezitua da, irudiaren eta testuaren uztartketaren ondorioz sortzen dena, eta, komikiak bezala, irudiaren balio narratiboa aldarrikatu ohi duena.

Aurtengo Etxeparearen irabazlea ekarpen estetiko indartsua duen obra da –nola bestela–, collage teknika aberatsaren erakusgarri. Inspirazio iturritzat Italo Calvinoren *Il barone rampante* aldarrikatzen zaigu, bai protagonisten izenaren bidez, bai honen filosofia konformagaitza txertatuaz gidoian.

Testuak hartzen du kontakizun-

naren pisua, nahiz eta karga sinboliko handiko adierazpideak erabili, jolas estetiko ugari egin, eta bestelako baliabide poetikoak etengabe agertu. Eta irudiek, harri-garriki, funtzio osagarria dute zeregin horretan.

Emaitzak, ontasun guztiak aitortuta ere, haurrentzako ez, helduentzako gozagarririk dirudi; hain estatikoa da gidoia, hain bihurrituak testuaren egiturak («Gogokodut gauzen neurria neurritz eta neurrian hartzea», adibidez), hain politikoak aldarrikapenak (Bantzetxe gutxiago, parke gehiago)...



### 'Cosimoren katiuskak'

**Idazlea:** Dani Martirena. **Ilustratzailea:** Ana Ibañez. **Argitaletxea:** Pamiela.

naiek historian kokatzeaz gain, irakurleari gutxika ezagun egingo zaizkion paisaiak, hiriak, kaleak, etxeak eta gelak erakusten dizkiona. Haietan haragiztatzen dira pertsonaiak, eta haietan garatzen, haiekin batera eraldatzen.

Irudiak garrantzitsuak dira Elorrietaren idazkeran; zinematografikoa iruditu zait. Keinuek, begiradek eta elkarrizketek pisu handia dute. Era berean, inguruaren, paisaien eta uneen deskribapen zehatzek ere kokatzen dituzte eleberria osatzen duten eszenak. Berrogeita lau atal edo eszena nagusitan banatuta dago liburua.

Nobelaz idazten hasi, eta hitz bat etorri zait burura, sare sozial digitalen garaioetako literaturaren erakusgarria dena: *fragmentarioa* (zaitkatu edo zaitakoa zuzentzen dit hiztegiak). Zentzu batean iruditzen zait zaitakoa *Neguko argiak*, atal ez oso luzeek eta pertsonaia desberdinen ikuspuntuek zatika osatzen baitute kontakizuna, baina nobela osoa da polifonikoa, eta ahotsen askotarikotasun horretan du osotasuna. Ez da, beharbada, uste bezain zaitakoa. Memoriak zatika itzultzen dizkigu oroitzapenak eta eleberriko per-

sonaiek memoriarekin duten harremanak ere izango du kontakizuna zatikatuta ikusteko orduan eraginik.

Ez nuke zeri buruzko eleberria den laburtzen jakingo. Berlinertatu den hainbat lagunem harremanak erakusten ditu Elorrietak, haien arteko maitasuna eta haserrea, desira eta gorrotoa, baina badiut irudipena haiek guztiak galera bizitzeko eta gainditzeko duten manerarekin lotuta dagoela bizitza ikusteko eta elkarrekin egoteko duten modua, sakonean horrek definitzen dituela pertsonaiak eta hortik eraikitzen dituela euren identitatea. Guztiak dituzte sus-torraiki zait burura, sare sozial digitalen badiutuzte ere; baina guztiak dute maturan bat, pentsamenduan ustez aberriagabean infiltratzen zaiena. Aipagarria da nola Afesek albanen daroan mamua den irakurlearen-tzat Afesen iraganaren bidez bere oraina ulertzeko zirrikitu.

Galerari aurre eginez aurrera egiten duen nobela dela esango nuke, hausturari zentzua eman eta historian euren lekua bilatzen dutelarik pertsonaiek, aurrera egiteko moduak askotarikoak izan daitezkeen arren.

## Absurdotik gutxi, egiazkotik dena

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero

**M**etaliteratura deitzen zaio literaturaz hausnartzeko egiten den literaturari. Antzerkiaren bidez egin zen ospetsu literatur ekintzaz hausnartzeko bide hau, Luigi Pirandelloren *Sei pertsonaia autore* bila antzeztanarekin. Gurean baditugu haur literatura barruan egin diren hausnarketa literario gutxi batzuk; adibidez, Yolanda Arrietaren *Zazpi pertsonaia istorio bila*, eta Iñaki Arranzen *Istoriorik gabeko ipuin istorioduna*, bi aipatzearen.

Esku artean dugun albuma ere metaliteratura ahaleginen zakuantza sartzen da, artez eta moldez. Gutun-azal baten eitea duen liburuaren azalean *Godoten esperoan*. *Bidalketak* idatzita dator, tinbre imitatzen duen marrazkian.

Barruan narratzaile orojakilea hasten da hizketan, orrialde zuriaren gainean. Ez du luze iraungo. Pertsonaiek agertzen isildu egiten da, aktoreei ahotsa emanim. Orduan abiatzen da absurdotik gutxi duen hausnarketa, bizitzaren funtsa erakusten diguna: batzuk zoriaren (istorioaren) zain geldik dauden bitartean, beste batzuek jolasean (istorioa) eraiki egiten dute.

Egiazki albuma denez, testua ez da deus, irudien gobernantzan dagoen beste baliabide bat baiziki.



### 'Istoriobat'

**Idazlea eta ilustratzailea:** Marianna Copo. **Itzultzailea:** Fernando Rey. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.